

2017ko ABUZTUAREN 1eko UDALBATZARRA
PLENO DE 1 DE AGOSTO DE 2017

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDE: JOSU IRATZOKI AGIRRE

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:

M^a ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO, IXONE TELLECHEA URANGA, AITOR ELEXPURU EGAÑA, AITOR IANTZI GOIENETXE, JOSE MIGUEL GORRIA VICUÑA, JOSE ANTONIO OYARZABAL IRIBAS, RAQUEL QUIROGA TAPIA (4. puntuan, trafikoko ataskoarengatik/ por atasco de tráfico), JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

MIKEL LERTXUNDI KORTA (lana / trabajo), GERMAN CASTILLO LAZCANOTEGUI (lana / trabajo).

Tokia: BERAko Herriko Etxea
Eguna: 2017-08-01
Ordua: 19:30
Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA
Día: 01-08- 2017
Hora: 19:30
Tipo sesión: ordinaria, 1^a convocatoria.

TRATATZEKO GAIK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

2017.eko uztailaren 12an egindako bilaren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.

Vista el acta de la sesión celebrada el día 12 de julio de 2017, por unanimidad SE APRUEBA.

2.- BALORAZIO PONENTZIAREN PROIEKTUA (7. BERRAZTERTZEA) ONESTEA ETA JENDAURREAN JARTZEA.

2.- APROBACION PROYECTO PONENCIA DE VALORACIÓN (REVISIÓN nº 7) Y EXPOSICIÓN PÚBLICA.

Alkateak gaia azaldu, zinegotziei bidalitako dokumentazioa dela, eta horren ondotik, Idazkariak prozedura ezagutarazi die.

El Alcalde expone el asunto, se trata de la documentación remitida a los concejales y concejalas y, tras ello, la Secretaria explica el

Jose M. Gorriak dokumentazioa ikusi ezin izan duenez abstenituko dela dio.

Bozketa eginda:

Aldeko botoak: 7 (5 EH Bildu, 1 Herrirako eta 1 UPN).

Aurkakoak: 0.

Abstentzioak: 1 (Herrirako).

Beraz, honako erabakia hartu dute:

2017ko urtarrilaren 19an Udalak dagokion Balorazio Ponentziaren proiektua (7. berraztertzea) egiteko prozedurari hasiera ematea onetsi zuen Udalak.

Ikusirik, Catastro Estudios s.l. enpresak eginiko Balorazio Ponentziaren proiektua (7. berraztertzea).

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroari buruzko 12/2006 Foru Legearen 36. artikuluari eta baita ere honekin bat datozen Foru Lege hau garatzen duen Erregelamenduaren artikuluei jarraikiz.

ERABAKI DUTE:

1) Balorazio Ponentziaren proiektua (7. berraztertzea) onestea.

**2) Aipatu Balorazio Ponentziaren proiektua jendaurrean jartzea 20 lan eguneko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Taulan argitaratutako iragarkia-
ren bidez.**

**3) Erabaki hau aipatu Lurralde Aberast-
sunaren Zerbitzuari bidaltzea behar diren
ondorioetarako.**

**3.- A242ko XEHETASUN AZTERLANA
(13. P, 242 L.,) BEHIN BETIKO ONES-
TEA:-----.**

procedimiento.

José M. Gorria indica que se abstiene porque no ha tenido ocasión de ver la documentación.

Realizada la votación resulta:

Votos a favor: 7 (5 EH Bildu, 1 Herrirako y 1 UPN.)

En contra: 0.

Abstenciones: 1 (Herrirako).

Por lo que, adoptan el siguiente acuerdo:

Con fecha 19 de enero de 2017 el Ayuntamiento acordó iniciar el procedimiento para la redacción del proyecto de la Ponencia de Valoración correspondiente (Revisión nº 7).

Visto el proyecto de Ponencia de Valoración (Revisión nº 7) redactado por la empresa Catastro Estudios s.l.

De conformidad con el artículo 36 de la Ley Foral 12/2006 del Registro de la Riqueza Territorial y de los Catastros de Navarra y concordantes del Reglamento de desarrollo de dicha Ley Foral.

SE ACUERDA:

1) Aprobar el proyecto de la Ponencia de Valoración (Revisión nº 7).

2) Someter a exposición pública el citado proyecto de Ponencia de Valoración durante el plazo de 20 días hábiles, mediante anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento.

3) Remitir este acuerdo al citado Servicio de Riqueza Territorial a los efectos oportunos.

**3.- APROBACIÓN DEFINITIVA ESTUDIO
DE DETALLE DE A242 (P. 13, p 242):-----
-----.**

Idazkariak espedientea azaldu eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:

**Ikusirik, A242an, 13. poligonoko 242. lur-zatikoko Xehetasun Azterlanaren espedientea,-----
-----k sustatua.-**

**Dokumentazioa: Xehetasun Azterlana -----
-----arkitektoak egin, 2017ko apirilekoa.**

Ikusirik, Nasuvinsak eta Idazkaritzak egini-ko txostenak, 2017ko martxoaren 29 eta maiatzaren 4koa eta 2017ko maiatzaren 16koa, hurrenez hurren.

2017ko maiatzaren 25ean Tokiko Gobernu Batzordeak Xehetasun Azterlan honi hasierako onespina eman zion.

Izanik, jendaurreko epean ez dela alegaziorik aurkeztu.

Hirigintza eta Lurraldearen Antolamenduari buruzko 35/2002 Foru Legearen 62., 74. eta 76. artikuluekin bat etorriz.

ERABAKI DUTE:

**1) -----k
A242an sustatutako Xehetasun Azterlana, 13. poligonoko 242. lur-zatiari dagokiona, behin betiko onestea.**

2) Behin betiko onespina hau bai eta haien barreneko hirigintza arauak ere Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3) Erabaki hau nahiz onartutako Xehetasun Azterlana honen ale bat eta emandako txosten teknikoak Nafarroako Gobernuko Lurralde eta Paisaia Zerbitzuari bidaltzea.

La Secretaria explica el expediente y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto expediente del Estudio de Detalle de la parcela 242 del polígono 13, en la A242, promovido por-----
-----.

Documentación: Estudio de Detalle redactado por el arquitecto-----de fecha abril de 2017.

Vistos informes realizados por Nasuvinsa y Secretaría, de fechas 29 de marzo y 4 de mayo de 2017 y 16 de mayo de 2017, respectivamente.

En fecha 25 de mayo de 2017 la Junta de Gobierno Local aprobó inicialmente este estudio de detalle.

Siendo que no se ha presentado ninguna alegación en el plazo de exposición pública.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 62, 74 y 76 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

SE ACUERDA:

1) Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle de la parcela 242 del polígono 13, en la A242, promovido por-----
-----.

2) Publicar en el Boletín Oficial de Navarra esta aprobación definitiva, así como las normas urbanísticas contenidas en ella.

3) Trasladar este acuerdo junto con un ejemplar del Estudio de Detalle aprobado e informes técnicos emitidos al Servicio de Territorio y Paisaje del Gobierno de Navarra.

4) Erabaki hau interesatuei eta jabeari jakinaraztea.

4) Notificar este acuerdo al interesado/a y al propietario.

4.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

4.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

1) Bandoak: Ez daude.

1) Bandos: No hay.

2) Ebazpenak: 2017ko uztailaren 10eko 131. ebazpenetik 2017ko uztailaren 27ko 146.era arte.

2) Resoluciones: De la resolución nº 131 de 10 de julio de 2017 a la nº 146 de 27 de julio de 2017.

Idazkariak hurrengo gaiari buruz azaldu du gaur bertan sortu dela, diru laguntza tramitatzerakoan ikasi dutela Alkatetzaren Ebazpenaren ordezkari biltzararen erabakia eskatzen zutela, beraz, ados egon ez gero zerrendatik kanpoko gai bezala tratatu behar dute.

La Secretaria explica sobre el siguiente asunto que ha surgido hoy mismo ya que al iniciar la tramitación de la subvención han visto que se exige acuerdo de Pleno y no Resolución de Alcaldía por lo que si están conformes deberá tratarse como asunto fuera del orden del día.

Hori dela eta, gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa beteaz izanik, honako gai hau tratatu dute:

Por ello, fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, se trata el siguiente asunto:

(Gaia tratatzen ari zenean Raquel Quiroga zinegotzia bertaratu da)

(Cuando se estaba tratando el mismo se incorpora la concejal Raquel Quiroga)

5.- BIDASOA KARRIKAKO KANPOKO ARGITERIA PUBLIKOA BERRITZEKO EKINTZA 2014-2020 HAZKUNDE JASANGARRIKO "FEDER" PROGRAMA OPERATIBOAN PARTE HARTZEKO ESKATZEA.

5.- SOLICITUD PARTICIPACIÓN EN EL PROGRAMA OPERATIVO FEDER DE CRECIMIENTO SOSTENIBLE 2014-2020 CON EL PROYECTO PARA RENOVACIÓN DEL ALUMBRADO PÚBLICO EXTERIOR DE LA CALLE BIDASOA.

Gaia azalduz, aho batez, honako erabakia hartu dute:

Explicado el asunto, por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:

Ikusirik 2014-2020 hazkunde jasangarriko "FEDER" programa operatiboaren barrenean karbono gutxi duen ekonomia batera

Vista la convocatoria de subvenciones a proyectos singulares de entidades locales que favorezcan el paso a una economía baja en

pasatzea bultzatzen duten toki entitateen proiektuetarako diru-laguntzen deialdia, ekainaren 16ko 616/2017 Errege Dekretuaren bitartez arautua.

Ikusirik Carlos Ros Zuasti Ingeniari Industrialak egindako “Kanpoko argiteria publikoa berritzea Beran, Bidasoa Karrikan (Nafarroa)” proiektua, 2017ko uztailaren 24koa.

ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako Errege Dekretuak araututako prozeduran parte hartu eta espresuki onartzea onestea.

2) Lehen zehaztu den “Kanpoko argiteria publikoa berritzea Beran, Bidasoa Karrikan (Nafarroa)” proiekturako diru-laguntza eskatzea.

3) Burutu nahi den proiekturako behar den kreditua gaitzeko konpromezua hartzea, hau 2014-2020 hazkunde jasagarriko “FEDER” programa operatiboaren barrenean karbono gutxi duen ekonomia batera pasatzea bultzatzen duten toki entitateen proiektuetarako diru-laguntzen deialdian onartua bada.

6.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira burutu.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 19:50etan.

O.E. ALKATEA/ V.B. EL ALCALDE
Josu Irtzoki Agirre

carbono en el marco del Programa operativo FEDER de crecimiento sostenible 2014-2020, regulada mediante Real Decreto 616/2017, de 16 de junio.

Visto el proyecto “Renovación del alumbrado público exterior de la calle Bidasoa de Bera (Navarra)”, de 24 de julio de 2017, redactada por el Ingeniero Industrial Carlos Ros Zuasti.

SE ACUERDA:

1) Aprobar la participación y aceptación expresa del procedimiento regulado por el Real Decreto mencionado.

2) Solicitar subvención para el proyecto “Renovación del alumbrado público exterior de la calle Bidasoa de Bera (Navarra)”, indicado anteriormente.

3) Adoptar el compromiso de habilitar crédito suficiente para financiar el proyecto planteado, en el caso de que el mismo resulte seleccionado en la convocatoria de subvenciones a proyectos singulares de entidades locales que favorezcan el paso a una economía baja en carbono en el marco del Programa operativo FEDER de crecimiento sostenible 2014-2020.

6.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

No se producen.

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 19:50 horas.

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta